

Errotabarri eskubaloit taldeko Kadeteak Espainiako txapelketan

Errotabarri eskubaloit taldeak maiatzaren 14 eta 16a bitartean burutuko den Espainiako txapelketan jokatu du. Apirilaren 16tik 18ra kadete mailako Euskadiko eskubaloit txapelketako fase finala jokatu zen Ermuan. Errotabarri taldekoek Usurbil, Basauri eta Zarautzen kontra jokatu behar izan zuten.

Ermuko Errotabarri eskubaloit taldeko kadeteek 3. postua lortu zuten apirilaren erdialdean Ermuan jokatu zen Euskadiko txapelketan. Fase final honetara heltzeko beste bi fase jokatu zituzten ermuarrek aurretik, 1. fasea eta 2. fasea, eta hauetan lehen postua eskuratu zuten. *“Egia esan, aurreko bi faseetako emaitzak ikusita, irabazteko aukerak genituela uste genuen”*, dio Asier Duranek, taldeko entrenatzaileak.

Lehen bi partiduak (Basauri eta Zarautzen kontra) galdu egin zituen Errotabarri taldeak. *“Ez genuen guk da-*

kigun moduan jokatu. Guk oso bizkor jokatzen dugu, eta ez genuen asmatu finala behar bezala jokatzen. Usurbilen kontra, domekan, lasaiago jokatu genuen eta 29-12 irabazi genien”, azaltzen du Duranek.

Hala ere Zarautzekin (1. postua) eta Usurbilekin (2. postua) batera jokatu duten ermuarrek Espainiako txapelketa. Basauri, berriz, txapelketa honetatik kanpo geratu da. Orain bezala, maiatzaren 14a eta 16a bitartean 3 partidu jokatu dituzte (ez dakite oraindik aurkariak zeintzuk izango diren) eta lehen postua lortzen due-



nak, Espainiako fase finala jokatu du. Iaz ere, Espainiako txapelketa jokatu zuen taldeak Madrilan, baina 3. geratu ziren eta ez zuten fase finala jokatu. Hala ere, Asierrek dionez, *“fase hau disfrutatzeke da, eta irabazten badugu hobeto”*.

Ermuan jokatu

Partidu horiek Ermuan jokatzeko eskatu du Errotabarri, Euskadiko txapelketan sortutako giroa ikusita: *“Kiroldegia bete egin zen partidu guztietan eta, urdurtasunean eragina izan ahal*

bazuen ere, giroa itzela izan zen, oso aberasgarria. Gainera, ume pilo bat etorri zen eta hori guretzat garrantzitsua da, eurek direlako etorkizunean eskubaloia heldu beharko diotenak”, dio Duranek.

Txapelketa honekin batera, bi ‘formakuntza klinik’ egin ziren Lobianon zapatu goizean. Horietan Espainiako kadeteen mutilen eta nesken hautatzaileek hitzaldiak eskaini zituzten. Hitzaldi horietan 30 lagun inguru bildu ziren eta oso interesgarria izan zen euren esanetan.



Santiago Plaza 3, behea · ERMUA
943 10 82 42



“Adituak gara ondo elikatzen irakasten”

AINARA IRIONDO ANSOLA
Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomatu

Komentukua 1, behea
943 17 63 72



DULCE BEBÉ PEQUE'S

0 eta 4 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

Zubiaurre 30 · ERMUA
943 170 005



Clínica Oftalmológica RECALDE
Oftalmologi Klinika

MIOPIA EBAKUNTZAK
INTRALASE® FEMTOSEGUNDO LASERRAREKIN
FINANTZIAKETA EZIN HOBEA

Plaza Barria, 2 - 2º - EIBAR - Tfnoa.: 943 201 844